




PKF
Attest

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA **ELKARTEA**

2025KO ABUZTUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIAREN URTEKO
KONTUAK, IKUSKARITZA-TXOSTENAREKIN BATERA



KONTU-IKUSKARI INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN
IKUSKARITZA TXOSTENA

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA Sozietatearen Bazkideei:

Iritzia

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA-ren (Sozietatea) urteko kontuak ikusku ditugu. Urteko kontu hauek, 2025eko abuztuaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, Sozietatearen 2025eko abuztuaren 31ko ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorritz (memoriaren 2.1 Oharrean adierazten dena), eta, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen ikuskaritzaren arautegia jarraituz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak, *Kontu-ikuskariaren erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta* atalean zehazten dira.

Sozietatetik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), ikuskaritzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da inongo egoerarik gertatu zeinak aipatutako araudi-erregulatzailaren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeenik.

Lortutako ikuskaritza ebidentziak gure ikuskaritza iritzirako nahikoa eta egokia den oinarria ematen digula deritzogu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Gure iritzi profesionalaren arabera, ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak ekitaldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite garrantzitsuak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Gure txostenean adierazi beharreko ikuskaritzaren kontsideratutako arrisku esanguratsurik ez dagoela erabaki dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2025. ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; berau egitea Administrazioaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure ikuskaritza iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Kudeaketa-txostenaren inguruan Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudiaren arabera, gure erantzukizuna hau da: aipatutako urteko kontuen ikuskaritzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz, batetik, kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta horri buruz informatzea eta, bestetik, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea. Hutsegite esanguratsuren bat dagoela ondorioztatzen badugu, egindako lanean oinarrituz, horren berri eman behar dugu.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera egindako lanean oinarrituz, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2025. ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen dute.

Urteko kontuen inguruan, Administrazioaileen erantzukizuna

Administrazioaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz eta baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokia den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, Administrazioaileen erantzukizuna Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko duen gaitasuna balioztatzea da, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziz eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, Administrazioaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean izan ezik.

Kontu-ikuskaritza erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta

Gure helburuak urteko kontuek, haien osotasunean hartuta, iruzurrengatik edota errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza txosten bat igortzea dira.

Arrazoizko segurtasuna ziurtasun maila altuakoa da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edota errakuntzengatik sor daitezke, eta garrantzitsutzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela aurreikusten bada.

Ikuskaritza txosten honen 1. eranskinean, urteko kontuen ikuskaritzari dagokionez ditugun erantzukizunen deskribapen zehatzagoa ematen da. Erantsita doan 4. orrialdean dagoen deskribapen hau gure ikuskaritza txostenaren atal bat da.

PKF ATTEST Servicios Empresariales, S.L.
ROAC-en izena emandakoa S1520 zk.




PKF ATTEST SERVICIOS
EMPRESARIALES, S.L.

2026 Núm. 03/26/01489
SELLO CORPORATIVO 96.00 EUR

Informe de auditoria de cuentas sujeto
a la normativa de auditoria de cuentas
española o internacional

2025eko azaroaren 27a


Manuel Gardezabal
ROAC-en izena emandakoa 20.010 zk.

Gure ikuskaritza txostenaren 1. eranskina

Gure ikuskaritza txostenean esandakoaz gain, Eranskin honetan urteko kontuen ikuskaritzari dagokionean ditugun erantzukizunak biltzen ditugu.

Kontu-ikuskarariaren erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritza dela eta

Espainian indarrean dagoen kontuen ikuskaritzaren arautegia jarraituz egindako ikuskaritzan, eszeptizismoz eta irizpen profesionala ezarritik jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurrerengatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihepenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Administrazioaileek emandako informazioa ere.
- Administrazioaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar izaten diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar izaten dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza txosteneko data arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari utz diezaioke.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura, edukia eta emandako informazioa balioztatzen ditugu, baita urteko kontuek transakzioak eta azpiko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko Administrazioaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritzaren irismena eta egite datak, eta ikuskaritzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

Administrazioaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehazten ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure ikuskaritza txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA

2025eko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIAREN

URTEKO KONTUAK

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA

BALANTZEAK, 2025eko ETA 2024ko ABUZTUAREN 31n
(Eurotan)

AKTIBOA

AKTIBO EZ-KORRONTIA:

- Inbilitatu ukitzeina (5. oharra)-
- Apikazio informazioak
- Inbilitatu materiala (6. oharra)-
- Lursailak eta erakusnak
- Instalazio teknikoak eta beste inbilitatu material batzuk
- Bidegiao inbilitatu eta aurrerakinak

Ondasun higiezinak inbertsioak (7.oharra)

- Taldeko enpresa, elkartu eta bazkideen epe luzerako inbertsioak (9. oharra)
- Epe luzerako finantza-inbertsioak (8 eta 10. oharra)
- Epe luzerako zuzidun komertzialak eta
- kubratzeko beste kontu batzuk (14. eta 20. oharra)-

Aktibo ez-korrontea, guztira

2025.08.31	2024.08.31
168.882	110.436
9.072.030	8.562.726
432.717	444.505
74.012	74.012
9.578.759	9.081.243
2.214.313	2.128.876
-	69.726
26.742	26.742
1.799.632	685.993
13.788.238	12.103.016

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

ONDARE GARBIA:

- Funtis propioak (13. oharra)-
- Kapitala-
- Kapital kooperatibo harpidetua
- Erreserbak-
- Nahitazko Erreserba Funtisa
- Beste erreserba batzuk
- Bazkideen ekarpenak
- Kooperatibaren emaitza (positiboa edo negatiboa)
- Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (14. oharra)
- Ondare garbia, guztira

PASIBO EZ-KORRONTIA:

- Epe luzerako hornidurak (15. oharra)-
- Langileentzako epe luzerako prestazioengaitko obligazioak
- Beste zuzkidura batzuk
- Epe luzerako zorrak (16. oharra)-
- Kreditu-erakundeetako zorrak (18. oharra)
- Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkidekiko epe luzerako zorrak (16. oharra)-
- Bazkidekiko zorrak (27. oharra)
- Pasibo ez-korrontea, guztira

2025.08.31	2024.08.31
1.086.705	1.100.894
1.020.711	998.091
2.360.098	2.344.143
3.380.809	3.342.234
22.608	15.955
5.967.681	5.608.658
4.288.892	2.943.638
10.256.573	8.552.296
122.202	193.038
334.507	367.910
456.709	560.948
1.833.130	2.841.415
292.329	280.299
2.582.168	3.682.662

AKTIBO KORRONTIA:

Irakinak

- Zuzidun komertzialak eta kubratzeko beste kontu batzuk (8. oharra)-
- Saharategaitako eta zehitu-erakundeetako bezeroak (27. oharra)
- Bereenak, taldeko enpresa, elkartuak eta bazkide zordunak (21. oharra)
- Herni Administrazioetako beste kreditu batzuk (20. oharra)
- Bazkideak, galdutako ordainketak (13. eta 27. oharra)

Taldeko enpresa, elkartu eta bazkideen epe luzerako inbertsioak (9. oharra)

- Epe luzerako finantza-inbertsioak (8. oharra)
- Ekandirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk (12. oharra)-
- Dizuntzia

Aktibo korrontea, guztira

AKTIBOA, GUZTIRA

PASIBO KORRONTIA:

- Epe laburreko Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funtisa (13. oharra)
- Epe laburreko zorrak (16. oharra)-
- Kreditu-erakundeetako zorrak (18. oharra)
- Beste finantza-pasibo batzuk (19. oharra)

Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkidekiko epe laburreko zorrak (16. oharra)-

Bazkidekiko zorrak (27. oharra)

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste

kontu batzuk (16. oharra)-

- Hornitzaileak
- Langileak (ordaintzeko dauden ordainmenak)
- Herni Administrazioetako beste zor batzuk (20. oharra)

Pasibo korrontea, guztira

ONDARE GARBI ETA PASIBOA, GUZTIRA

54.722	54.367
58.560	70.712
-	106.117
479.923	1.607.956
34.074	27.026
573.457	1.811.811
-	45.000
286.000	509.000
368.899	252.528
1.283.078	2.672.706
15.071.406	14.775.722

Honi atxikituak memoriako 1-27. buletariko oharak. 2025eko abuztuaren 31ko balantzearen barnean sartzen dira.



IZASKUN AGUIRRE COLLADO And


XABIER MAÑUOLA IÑARRA In



AITZOL LLONA AURRECOECHEA In



NAROIA ATXURRA LASHUERRI And


MARIA RODRIGUEZ URANGA And


IÑIGO ORIBE BASTERO In


AÑKONI ESTIUR FERRA In


IÑIGO MAÑUOLA IÑARRA And


IÑIGO MAÑUOLA IÑARRA And

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA

**2025eko ETA 2024ko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKION GALDU-
IRABAZIEN KONTUA**
(Eurotan)


	2025	2024
ERAGIKETA JARRAITUAK:		
Negozio-zifren zenbateko garbia (22. oharra)-		
Salmentak	309.598	308.805
Zerbitzu-emeak	5.389.434	5.343.400
	5.699.032	5.652.205
Hornikuntzak (22. oharra)	(1.047.066)	(1.007.992)
Beste ustiapen-sarrera batzuk-		
Sarrera osagarriak eta kudeaketa korronteko beste sarrera batzuk	121.961	104.229
Ekitaldiko emaitzari atxikitako ustiapeneko diru-laguntzak (14. oharra)	8.645.779	8.282.626
	8.767.740	8.386.855
Pertsonal-gastuak (22. oharra)-		
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(6.979.732)	(6.924.577)
Gizarte-kargak	(2.311.142)	(2.102.611)
Hornidurak (15. oharra)	70.836	(62.700)
	(9.220.038)	(9.089.888)
Beste ustiapen-gastu batzuk-		
Kanpoko zerbitzuak	(3.335.669)	(3.379.698)
Tributuak	(5.260)	(12.062)
Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura-aldaketak (15. oharra)	(36.506)	(17.050)
	(3.377.435)	(3.408.810)
Ibilgetuaren amortizazioa (5., 6. eta 7. oharra)	(606.424)	(533.667)
Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzak eta bestelakoak egozteak (14. oharra)	107.856	70.275
Beste emaitza batzuk	47.686	797
Hezkuntza, formakuntza eta sustapen funtsa		
Zuzkidura (4.j eta 3.oharra)	(2.512)	(1.773)
	368.839	68.002
USTIAPEN-EMAITZA		
Finantza-sarrerak-		
Balore negoziagarrienak eta beste finantza-tresna batzuenak-		
Hirugarrenenak (8. oharra)	31.317	50.601
Finantza-gastuak-		
Hirugarreneneko zorreatatik (16. oharra)	(99.822)	(102.648)
Narriadura eta finantza-tresnak besterentzeagatik emaitza-		
Narriadurak eta galerak (9. oharra)	(277.726)	-
	(346.231)	(52.047)
FINANTZA-EMAITZA		
ZERGA ORDAINDU AURREKO EMAITZA		
ERAGIKETA JARRAITUEI DAGOKIEN		
EKITALDIKO EMAITZA		
Mozkinen gaineko zerga (20. oharra)	22.608	15.955
EKITALDIKO EMAITZA		
	22.608	15.955

Honi atxikitako memoriako 1-27 bitarteko oharra 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuaren barruan sartzen dira.


ALEX BELAUSTEGUI FORONDA Jn



ANDONI ESTURRO ERRAZTI Jn


ISUSKO URIBE BASTERO Jn


IZASKUN AGUIRRE COLLADO And


XAHIER MANTEROLA LEIZAOLA Jn


ENARA VENTURINI ALVAREZ And


ALAITZ LANDALUZE SOLAUN And


NAROA ATXURRA LAS FUENTES And


LIBE MAKUA GARCIA And


AITZOL LLONA AURRECOECHEA Jn


MARIA RODRIGUEZ URANGA And


OLATZ IBARRA ETXE LARIGOTIA And

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA

2025eko ETA 2024ko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIAK

**A) 2025eko ETA 2024ko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKION
AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA-ORRIAK**

	Eurotan	
	2025	2024
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	22.608	15.955
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak (14. oharra)	1.453.110	1.085.195
Ondare garbian zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	1.453.110	1.085.195
Galdu-irabazien konturako transferentziak		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak (14. oharra)	(107.856)	(70.275)
Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira	1.367.862	1.030.875

**B) 2025eko ETA 2024ko ABUZTUAREN 31n
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN
ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIAK, GUZTIRA**

	Eurotan					
	Kapital kooperatiboa harpidetua	Erreserbak	Bazkideen ekarpenak	Kooperatibaren emaitza	Jasotako diru-laguntzak dohaintzak eta utzirikoak	Guztira
2023ko abuztuaren 31ko saldoa	1.151.383	3.306.252	817.929	18.822	1.928.718	7.223.104
Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	-	15.955	1.014.920	1.030.875
Kapitalaren aldaketak (13. oharra)	(45.864)	-	45.864	-	-	-
Bazkideekiko beste eragiketa batzuk (13. oharra)	(4.625)	17.160	285.782	-	-	298.317
Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk-						
2023ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitzaren banaketa	-	18.822	-	(18.822)	-	-
	(50.489)	35.982	331.646	(2.867)	1.014.920	1.329.192
2024ko abuztuaren 31ko saldoa	1.100.894	3.342.234	1.149.575	15.955	2.943.638	8.552.296
Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	-	22.608	1.345.254	1.367.862
Kapitalaren aldaketak (13. oharra)	(44.200)	-	44.200	-	-	-
Bazkideekiko beste eragiketa batzuk (13. oharra)	30.011	22.620	283.784	-	-	336.415
Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk-						
2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitzaren banaketa	-	15.955	-	(15.955)	-	-
	(14.189)	38.575	327.984	6.653	1.345.254	1.704.277
2025eko abuztuaren 31ko saldoa	1.086.705	3.380.809	1.477.559	22.608	4.288.892	10.256.573

Honi atxikitako memoriako 1-27 bitarteko oharra 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketaren egoera-orriaren barruan sartzen dira.


ALAITZ LANDALUZE SOLAU And

ALAITZ LASA AURRECOECHEA Jr.

IÑAKI LABE BASTERRE And

ENARA VENTURINI ALVAREZ And


IZASKUN AGUIRRE COLADO And

ANDONI ESTURO ERRAZTI Jr.

XABIER MANTEOLA LEJARZA Jr.

MARIA RODRIGUEZ URANGA And


ALEX BELAUSTEGUI FORONDA Jr.

NEREA ATXURRA LAS FUENTES And

ENE MENCIA GARCIA And

OLATZ BASTERRE LARUSOTIA And

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA
2025eko eta 2024ko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN DIRUZAINZTA-FLUXUEN
EGOERA-ORRIAK
(Eurotan)

	Eurotan	
	2025	2024
USTIAPEN-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK:		
Ekitaldiaren emaitza, zergen aurretik	22.608	15.955
Emaitzaren doikuntzak-		
Ibilgetuaren amortizazioa (5., 6. eta 7.oharrak)	606.424	533.667
Narriaduragatiko balioespen-zuzenketak (9. oharra)	277.726	-
Horniduren aldaketak	(104.239)	(39.576)
Diru-laguntzen egozpena (14. oharra)	(107.856)	(70.275)
Finantza-sarrerak	(31.317)	(50.601)
Finantza-gastuak	99.822	102.648
	<u>740.560</u>	<u>475.863</u>
Kapital korrontearen aldaketak-		
Izakinak	(355)	9.279
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	62.235	(1.209.266)
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	(365.968)	489.956
Bestelako pasibo korronteak	739	(318)
	<u>(303.349)</u>	<u>(710.349)</u>
Ustiapen-jardueretako esku-diruaren beste fluxu batzuk-		
Interesen ordainketa	(99.822)	(102.648)
Interesen kobrantza	31.317	50.601
	<u>(68.505)</u>	<u>(52.047)</u>
	<u>391.314</u>	<u>(270.578)</u>
INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK:		
Inbertsioengatiko kobrantzak (ordainketak)-		
Taldeko enpresa, elkartu eta bazkideak	(163.000)	(45.000)
Ibilgetu material eta ondasun higiezinak inbertsioak	(1.148.587)	(2.504.500)
Beste finantza-aktibo batzuk	223.000	101.000
	<u>(1.088.587)</u>	<u>(2.448.500)</u>
	<u>(1.088.587)</u>	<u>(2.448.500)</u>
FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK:		
Ondare-tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak-		
Ondare-tresnen jaulkipena	465.764	363.451
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak	1.453.110	1.085.195
	<u>1.918.874</u>	<u>1.448.646</u>
Finantza Pasiboengatiko kobrantzak eta ordainketak-		
Jaulkipena-		
Kreditu-entitateekiko zorrak	-	1.350.000
Itzulketak eta amortizazioa-		
Kreditu-entitateekiko zorrak	(1.033.244)	(412.825)
Ondare-tresnen amortizazioa	(71.986)	(67.043)
	<u>(1.105.230)</u>	<u>(479.868)</u>
	<u>(1.105.230)</u>	<u>870.132</u>
	<u>813.644</u>	<u>2.318.778</u>
ESKUDIRUAREN EDO HAREN BALIOKIDEEN GEHIGUNTZA (GUTXITZE) GARBIA	<u>116.371</u>	<u>(400.300)</u>
Eskudirua edo haren baliokideak, ekitaldiaren hasieran	252.528	652.828
Eskudirua edo haren baliokideak, ekitaldiaren amaieran	368.899	252.528

Honi atxikitako memoriako 1-27 bitarteko oharrak 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko diruzaintza-fluxuen egoera-orrian sartzen dira.


ALEX BELAUSTEGUI FORONDA Jn.


IZASKUN AGUIRRE COLLADO And.


ALAITZ LANDALUZE SOLAUN And.


AITZOL LLONA AURRECOECHEA Jn.


ANDONI ESTURO ERRAZTI Jn.


NAROA ATXURRA LASFUENTES And.


ISUKO ORIBE BASTERO Jn.


XABIER MANTEROLA LEJARZA Jn.


LIBE MAKUA GARCIA And.


ENARA VENTURINI ALVAREZ And.


MARIA RODRIGUEZ URANGA And.


OLATZ IBARRETXE LARISGOITIA And.

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA

2025eko ABUZTUAREN 31n AMAITUTAKO

URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

(1) Elkartearen Jarduera

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA, aurrerantzean Elkarte, gurasoak elkartzen dituen Irakaskuntza-kooperatiba gisa eratu zen eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen hastapenei eta xedapenei lotuta dago, baita legezko aginduei eta bere Estatutuei ere.

Bere Estatutu Sozialekin bat eginik, irakaskuntza-jarduerak garatzea maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren jakintzaren edo prestakuntzaren edozein adarretan du xede sozial gisa. Horretarako, Eskolaz kanpoko eta lotutako jarduerak ere egin ahal izango ditu, baita eskola-zerbitzu osagarriak eta irakaskuntza-jarduerak errazten dituzten guztiak ere. Gainera, kooperatibak eguneratuak dauden pedagogia-metodoen ezarpenaren bitartez, bere bazkideen seme-alaben hezkuntza kooperatiboki gauzatzea ere du xede sozial gisa, bere ikastetxeen eta etorkizunean eratu liratekeen ikastetxeen bitartez, irabazi-asmoa erabat baztertuz eta itzulkin kooperatiboan banaketa debekatuz, honako oinarritzko hastapen hauei jarraituz:

- a) Ikasleen prestakuntza integrala, ez soilik ikasgaien arloan jakintza eskaintzea barne hartzen duen prestakuntza, baizik eta baita ikasleen nortasunaren garapena eta pertsona libre, arduratsu, tolerante eta elkartasunez parte hartzen duten gizartearen zerbitzura dauden kide gisa behar duten prestakuntza eskaintzea ere.
- b) Prestakuntza horrek bizitzaren ikusmolde euskal tradizio eta kulturaren du oinarria, eta xede nagusitzat izango dute ikasleek Euskara ikasitea, hobetzea eta egunero, ohituraz, erabiltzea. Horretarako, Euskara erabiliko da kooperatibaren ikastetxeetan ematen diren ikasgaietan, Autonomia Erkidegoan aitortuta dauden hainbat mailaren arabera.
- c) Familien lankidetzeta eta esku-hartze eraginkorra sustatzea seme-alaben hezkuntza-prozesuan, ekipamendu egokiez hornituz eta pedagogia- eta kudeaketa-metodo eguneratuak aplikatuz.

Elkartea itunpeko ikastetxea da, irailaren 8ko 298/87 Dekretuaren babesean, zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoaren Hezkuntza Itunen Araudia onartzen den, eta horren indarrez jasotzen ditu aurrera egiteko beharrezkoak dituen diru-laguntzak (14. oharra).

2001eko apirilaren 20an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Kontseilariaren Aginduen bitartez, Lauro Ikastola, Kooperatiba Elkartea Herri Onurako aitortu zen.

Elkartea Lan Ministerioko Kooperatiben Erregistro Orokorrean erregistratuta dago 17.898 zenbakiarekin; era berean, Eusko Jaurlaritzaren Kooperatiben Erregistroan izen emanda dago BI-145 orrian, 2 zenbakidun idazpenarekin.

Elkarte honen jardun-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoari mugatzen zaio eta bere iraupena mugagabea da.

Elkarteak helbide soziala du Goitiko Antsobiaga, 2 zenbakian, Loiu (Bizkaia).

2025eko abuztuaren 31n, Lauro Taldea ez dago behartuta urteko kontu bateratuak formulatzera, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehazten denaren arabera.

Honako urteko kontu hauek eurotan aurkezten dira, Elkartearen txanpon funtzional eta aurkezpen eraginetarako txanpona.

(2) Urteko Kontuen Aurkezpen-Oinarriak

2.1 *Irudi leiala-*

Elkarteari aplikagarria zaion informazio finantzarioaren lege araudia, ondorengo da:

- a) Merkataritza Kodean ezarrita datorren eta gainontzeko merkatal legedia.
- b) 1514/2007 Errege Dekretuan onartutako Kontabilitate Plan Orokorra, eta bere ondorengo aldaketak.
- c) Abenduaren 21eko EHA/3360/2010 Aginduan onartutako kooperatiben kontabilitate arauak.
- d) Kontabilitate Plan Orokorren garapen gisa, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako eta derrigorrez bete beharreko arauak.
- e) Gainontzeko espainiar kontabilitate araudi aplikagarria.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren urteko kontuak Elkartearen kontabilitate-erregistroetatik lortu dira. Urteko kontuak Errektore Kontseiluak formulatu ditu, indarrean dagoen legerian bildutako eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioen ezarpenaren bitartez, 2025eko abuztuaren 31n Elkartearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi leial bat erakusteko xedez, baita aipatutako data horretan amaitu den urteko

ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen eta dagozkien diruzaintza-fluxuaren irudi leiala ere.

Aipatutako urteko kontuak, Elkartearen Errektore Kontseiluak 2025eko azaroaren 27an formulatuak, Bazkideen Batzar Nagusiaren onarpenaren zain daude. Hala ere, Errektore Kontseiluak ez du espero berrespen-prozesuan aldaketa esanguratsurik gertatuko denik. Bestalde, 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren urteko kontuak Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusiak onartu zituen 2025eko otsailaren 27an egindako ohiko bileran.

2.2 ***Kontabilitate-printzipioak-***

2025eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldiaren urteko kontuak lantzeko orduan Elkarteari aplikagarria zaion informazio finantzarioaren lege araudia jarraitu da, eta bereziki, 4. oharrean deskribatzen diren erregistro- eta balioespen-arauei jarraitu zaie. Errektore Kontseiluak urteko kontuetan eragin esanguratsua duten kontabilitate printzipio eta arau derrigor guztiak kontuan hartu ditu. Urteko kontu hauek egitean ez dago, eragina esanguratsua izanik, aplikatzeari utzi zaion nahitaezko edozein kontabilitate-printzipiorik. Era berean, ez dira nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipiorik aplikatu.

2.3 ***Ziurgabetasunaren balioespenaren eta estimazioaren alderdi kritikoak-***

a) ***Kontabilitate-estimazio garrantzitsuak eta hipotesiak***

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan Elkartearen Zuzendaritzak adierazitako iritziak eta egindako estimazioak erabili dira aldizka, ondoren haren Errektore Kontseiluak berretsiak, haietan erregistratuta agertzen diren hainbat aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso kuantifikatzeko. Egindako hipotesiak eskarmentu historikoetan eta egungo inguruabarretan arrazoizkoak diren beste faktore batzuetan ere oinarritzen dira. Aipatutako estimazio horiek aztertutako gertakariei buruz 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin badira ere, gerta daiteke etorkizuneko gertakariak datozen ekitaldietan haiek aldatzera behartzea, eta hori, dagokionean, modu prospektiboan egingo litzateke.

Aktibo eta pasiboen aldaketa esanguratsuak ekar lezaketen arrisku garrantzitsuak duten estimazio nagusiak ondorengoak dira:

- Elkarteko langileekin hartutako konpromisoetatik pasiboen kalkulu aktuarialean erabilitako hipotesiak, baita

familian ezbeharren bat nozitu duten ikasleen eskolaratze, garraio eta jangelagatik aurreikusitako kostutik eratorritako pasiboen kalkuluari dagozkionak ere (4.n., 4.o. eta 15. oharrak).

- Hainbat aktiboen balio-narriadura galeren eboluzioa: Elkartek urtero aztertzen du aktiboen balio-narriaduraren arrastorik ote dagoen, hala balitz aktiboaren balio berreskuragarria balioetsiz (5.,6.,7.,8. eta 9. oharrak).

b) Martxan dagoen enpresaren printzipioa.

2025eko abuztuaren 31n, sozietateak maniobra-funts negatiboa aurkeztu zuen, 949.587 eurokoa. Horrek zalantzan jartzen du funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren aplikazioa. Hala ere, hainbat faktorek murriztu edo ezabatu egiten dute sozietateak enpresa gisa funtzionatzen jarraitzeko duen gaitasunari buruzko zalantza hori. Faktore horiek, batez ere, negozioaren gutxi gorabeherako kutxa-fluxuen bilakaeran oinarritzen dira; horregatik, Kontseilu Errektoreko kideek uste dute inguruabar horrek ez diola sozietateari likidezia-arazorik sortuko.

Horrenbestez, 2025eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak egiterakoan, martxan dagoen enpresaren printzipioa aplikatu da.

2.4 Aldaketak kontabilitate-irizpideetan-

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian zehar, ez dira kontabilitate-irizpideetan aldaketa esanguratsurik egin aurreko ekitaldian ezarritako irizpideei dagokienez.

2.5 Informazioa alderatzea-

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko urteko kontuek, balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren eta diru-fluxuen egoera-orriaren partida bakoitzarekin alderatzeko, 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak ere aurkezten dituzte. Era berean, 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari buruzko memoria honetan jasotako informazioa 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko informazioarekin alderatzeko aurkeztu da. Alde horretatik, 2024ko abuztuaren 31ko balantzeak badu birsailkapen ez-esanguratsuren bat alderagarritasuna hobetzeko. Birsailkapen horrek ez dio eragiten data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitzari, ezta ondare garbiari ere.

Evare
Jesús Bire
A

A

4

A

A

A

2.6 Akatsen zuzenketa-

Eransten diren urteko kontuak egiterako orduan ez da aurreko ekitaldiko urteko kontuetan agertzen diren zenbatekoen berradierazpena ekarri duen ezein akats esanguratsurik atzeman.

2.7 Garrantzi erlatiboa-

Finantza-egoeren edo beste gai batzuen zenbait partidari buruz honako txosten honetan banakatu beharreko informazioa mugatzeko orduan, Elkartek, Kontabilitate Plan Orokorraren Kontabilitateko Kontzeptuzko Markoarekin bat eginik, kontuan izan du 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren urteko kontuei dagokien garrantzi erlatiboa.

(3) Emaizten Aplikazioa

Errektore Kontseiluak Bazkideen Batzar Nagusiak onar dezan proposatuko duen 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitzaren banaketa ondorengoa da:

	Eurotan
<u>Banaketarako oinarria</u>	
Ekitaldiko emaitza	22.608
<u>Banaketa edo aplikazioa</u>	
Nahitaezko Erreserba Funtsera	5.024
Borondatezko Erreserba Funts banaezinera	17.584
	<u>22.608</u>

Bazkideen Batzar Nagusiak, 2025ko otsailaren 27an bildua, 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitza positiboak ondorengo banaketa izatea erabaki zuen:

	Eurotan
<u>Banaketarako oinarria</u>	
Ekitaldiko emaitza	15.955
<u>Banaketa edo aplikazioa</u>	
Nahitaezko Erreserba Funtsera	3.545
Borondatezko Erreserba Funts banaezinera	12.410
	<u>15.955</u>

Euskadiko Kooperatiben Legean eta Estatutu Sozialetan oinarrituz, Elkartek dituen soberakinetatik (ekitaldi bakoitzeko soberakin garbiak, alegia, behin zergak aintzat hartuta eta kasuan kasu, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera erabilitako zenbatekoak kenduta) Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funts Kooperatibora, guztira %30a bideratuko da, gutxienez Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funts Kooperatibora %10a eta Nahitaezko Erreserba Funtsera %20a bideratuz. Azkeneko funts hau Kapital Sozialaren %50era ez bada iristen, Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funts Kooperatibora bideratutako zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.

Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funts Kooperatiboan egindako zuzkiduraren zenbatekoa Elkartearen ekitaldiko gastuen artean barneratzen da, galdu-irabaziko "Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funtsa-Zuzkidura" kontuaren barruan. Honekin lotuta, 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian urteko ekitaldian kargatutako zenbatekoa 2.512 eurokoa da.

(4) Erregistro eta Balioespen-Arauk

Ondoren, 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren urteko kontuak prestatzerako orduan erabili diren erregistro eta balioespen-arau esanguratsuenak laburbiltzen dira:

a) *Ibilgetu ukiezina*

Arau orokor gisa, ibilgetu ukiezina eskurapen-prezioagatik edo ekoizpen-kostuagatik balioesten da hasieran. Ondoren, kostu-balioa balioesten da, dagokion amortizazio metatu gutxiagotuagatik, bizitza erabilgarriaren arabera kalkulatua, eta egoki denean, aitortutako narriaduragatik egindako balioespen-zuzenketa zenbateko metatuagatik.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa haien bizitza erabilgarrian zehar modu sistematikoan amortizagarria den zenbatekoa modu linealean banatuz egiten da. Eragin horietarako ulertzen da zenbateko amortizagarria eskurapen-kostua dela ken, ezargarria baldin bada, bere hondar-balioa.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazio-kontzeptuagatik 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren galdu-irabazien kontura egindako kargua 37.675 eurokoa izan da (19.309 eurokoa 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian).

Aktibo horiek narriaduragatik izan diren galeren aitortza egiteko irizpideak, eta, egoki denean, aurreko ekitaldietan erregistratu diren

narriaduragatiko galeren berreskurapenenak, 4.d oharrean deskribatzen dira.

Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak-

Kontu honetan Elkartearen hainbat adierazpideen jabegoa eskuratzeko edo erabilera-eskubidea izateko ordaintzen diren zenbatekoak erregistratzen dira, edo Elkartek garatutakoa erregistratzetik sortutako gastuak.

Elkartek berak garatzen dituen marken erregistroa dela-eta sortutako gastuak industria-jabego gisa erregistratzeko irizpideari jarraitzen dio.

2024 eta 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko emaitzen kontuko "Ibilgetu ukiezina – Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak" atalaren amortizazio-kontzeptuagatik ez da kargurik egon (5. oharra).

Aplikazio informatikoak-

Elkartek kontu honetan erregistratzen ditu ordenagailu-programak eskuratu eta garatzeagatik izandako kostuak, barne direlarik webguneak garatzeko kostuak, lau urtetan linealki amortizatzen direnak. Aplikazio informatikoak mantentzeagatik kostuak, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko emaitzen kontuko "Ibilgetu ukiezina – Aplikazio informatikoak" atalaren amortizazio-kontzeptuagatik kargua 37.675 eurokoa izan da (19.309 eurokoa 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian) (5. oharra).

b) *Ibilgetu materiala-*

Ibilgetu materialean sartzen diren ondasunak, hasiera batean, eskurapen-prezioagatik edo ekoizpen-kostuagatik balioesten dira, eta ondoren, dagozkien amortizazio metatuaren eta narriaduragatik izan dituzten galeren kostu garbiaren balioan balioesten dira.

Ibilgetu materialeko ondasunen berritze-, zabaltze- eta hobekuntza-kostuak aktiboan txertatzen dira ondasunaren balio handien gisa, haien ahalmena, produktibitatea edo bizitza erabilgarriaren luzapena handitzea dakarten neurrian, eta ondorioz, ordeztu edo berritu diren elementuak kontabilitatetik erretiratzen dira.

Aktiboen erabilera hobetzen ez duten eta haien bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentze-, kontserbazio- eta konpontze-gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapen-printzipioari jarraiki, hauek egiten diren ekitaldiaren kostu gisa.

Elkarteak bere ibilgetu materiala amortizatzen du metodo linealari jarraituz, eskurapen-kostua banatuz ken, egoki denean, estimatu den bizitza erabilgarriaren urteen arteko hondar-balioa, jarraian azaldutako portzentaian arabera:

	<u>Ehunekoa</u>
Eraikinak	%2,5
Instalazio teknikoak	%10
Beste instalazio batzuk	%10
Altzariak	%10
Informazioa prozesatzeko ekipak	%20

Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk dauden lur-sailak balio-bizitza mugagabea dutela iritzi zaio eta, beraz, ez dira amortizazio gai.

Elkarteak hondar-balioa, bizitza erabilgarria eta amortizazio metodoa ekitaldi bakoitzaren itxieran birpasatzen du. Hasierako irizpideen aldaketak, kasuan kasu, estimazio aldaketa gisa kontsideratzen dira.

Ibilgetu materialaren amortizazio-kontzeptuan 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren galdu-irabazien kontura egindako zordunketa 460.899 eurokoa izan da (413.781 eurokoa 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian) (6. oharra).

Aktibo bat besterentzeak edo erretiratzeak ekartzen duen mozkina edo galera honela kalkulatzen da: salmentaren prezioaren eta aktiboak liburuetan duen zenbatekoaren arteko alde gisa, eta emaitzen kontuan airtortzen da.

Elkartearen Errektore Kontseiluaren iritziz aktiboen kontabilitate-balioak ez du haien balio berreskuragarria gainditzen; hura 4.d oharrean azaldutakoaren arabera kalkulatzen da.

Aktibo horien narriadurak sortutako galerak aitortzeko irizpideak eta, egoki denean, aurreko ekitaldietan narriadurak sortutako galeren berreskurapenak 4.d oharrean deskribatzen dira.

c) **Ondasun higiezinetakako inbertsioak-**

Ez ekoizpenean erabiltzeko edo ondasunak edo zerbitzuak hornitzeko, eta ezta Elkartearen administrazio helburuetarako edo bere eragiketa arrunten artean saltzeko ere, baizik eta etengabe errentak

eskuratzeko erabat edo hein batean jabetzan dauzkan higieziei dagozkie, hain zuzen, ondasun higiezinetakoinbertsioak.

Aktibo horiek, hain justu, ibilgetu materialari buruz arestian aipatutako 4.b oharrean adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.

Aktibo horien errentamenduagatik diru sarrerak alokairuei buruzko 4.e oharrean azaldutakoari jarraituta onartuko dira.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren galdu-irabazien kontuan, higiezinetakoinbertsioen amortizazioa 107.850 eurokoa izan da (2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian, berriz, 100.577 eurokoa) (7. oharra).

d) *Ibilgetu ukiezinaren, materialaren eta ondasun higiezinetakoinbertsioen balio-narriadura*

Elkarteak, gutxienez, ekitaldi bakoitzaren amaieran, bere ibilgetu ukiezin, material eta ondasun higiezinetakoinbertsioen balioaren narriaduragatik galeren arrastorik ote dagoen aztertzen du, aipatutako aktiboen balio berreskuragarria liburuetan agertzen den balioa baino zenbateko txikiagora murrizten dutenak, alegia. Arrastorik baldin badago, aktiboaren balio berreskuragarria balioesten da, balio-narriaduragatik egon litekeen galeraren irismena mugatzeko asmoz. Aktiboak ez badu beste aktibo batzuetatik edo aktibo-taldeetatik kanpo dagoen diruzaintza-fluxurik sortzen, Elkartearen aktiboaren zati den diruzaintzaren unitate sortzailearen (EUS) balio berreskuragarria kalkulatu du.

Balioetsi den zenbateko berreskuragarria aktiboaren liburuetan dagoen balio garbia baino txikiagoa baldin bada, narriaduragatik dagokion galera erregistratu da galdu-irabazien kontura, eta aktiboaren liburuetan haren balioa murriztu da bere balio berreskuragarria.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian Elkarteak ez du galerarik erregistratu ibilgetu ukiezin, material eta ondasun higiezinetakoinbertsioen narriaduragatik.

e) *Errentamenduak-*

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, betiere haien baldintzak kontratuaren gai den aktiboaren jabetzari dagozkion arriskuak eta etekinak funtsean errentariari transferitzen zaizkiola ondorioztatzen bada. Gainerako errentamenduak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

Errentamendu operatiboak-

Errentamendu operatiboaren eragiketetan, errentan eman den ondasunaren jabetza eta, funtsean ondasun horren gain dauden arriskuak eta abantailak, errentatzaileak ditu.

Elkarteak errentatzaile gisa jokatzeko duenean, errentamendu operatiboaren hitzarmenetatik sortutako sarrerak eta gastuak haiek sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuari esleitzen zaizkio. Era berean, errentan hartutako ondasunaren eskurapen-kostua balantzean aurkezten da haren izaera kontuan hartuz. Aipatutako eskurapen kostua kontratuaren beste kostu egozgarriengatik handituko da, zeintzuk kontratuak duen iraupenean gastu bezala kontabilizatuko dira, errentamenduatik sarrerak kontabilizatzeko aplikatutako irizpide berdina jarraituz.

Elkarteak errentari moduan jokatzeko badu, errentamendu erabaki eraginkorretatik eratorritako gastuak galdu-irabazien kontuan kargatuko dira, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu eraginkor bat kontratatzean egindako zeinahi kobrantza edo ordainketa aurretiazko kobrantza edo ordainketatzat joko da, eta errentamendu denboraldian barrena emaitzetan txertatuko da, alokatutako aktiboaren mozkinak eman edo jasotzen diren neurrian.

f) Finantza-tresnak -

Enpresa batean aktibo finantzario bat sortzen duen eta, aldi berean, beste enpresa batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat sortzen duen kontratua da finantza-tresna.

Finantza-tresnak, hasierako aitortzearen unean, finantza-aktibo, finantza-pasibo edo norberaren ondare-tresna gisa sailkatzen dira, kontratu-akordioaren funts ekonomikoarekin eta finantza-aktiboaren, finantza-pasiboaren edo ondare-tresnaren definizioekin bat etorriz.

Balora daitezkeen, Elkarrekin honako kategoriatan sailkatzen ditu finantza-tresnak: galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako aktibo eta pasibo finantzarioak; ondare garbian aldaketak izan dituzten arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak; aktibo finantzarioak, ondare garbiaren bidez arrazoizko balioan balioetsitako aktibo finantzarioak; eta aktibo finantzario gisa izendatutako gainerako ondare-tresnak eta kostu gisa baloratutako gainerako aktiboak. Elkarrekin kostu amortizatuko eta arrazoizko balioko aktibo finantzarioak sailkatzen ditu ondare garbian aldaketak eginda, izendatutako ondare-tresnak izan ezik, negozio-ereduaren eta kontratu-fluxuen ezaugarrien arabera. Elkarrekin honela sailkatzen ditu pasibo finantzarioak: kostu amortizatuan

baloratuak, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan izendatutakoak eta negoziatzeko mantendutakoak izan ezik.

Finantza-aktiboak

Sailkapena eta balorazioa-

Elkarteak dituen aktibo finantzarioak baloratzeko, kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. Kostu amortizatuko finantza-aktiboak:

Aktibo finantzario bat kategoria honetan sartzen da, merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko inbertsioari eustea helburu duen negozio-eredu baten esparruan mantentzen bada, eta aktibo finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak sortzen dituzte, printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez direnak.

Egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko printzipala eta interesa baino ez duten kontratuzko diru-fluxuak mailegu arrunt edo erkide izaera duen akordio baten berezkoak dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Aktibo finantzarioen talde bat bere kontratu-fluxuak lortzeko kudeatzeak ez du esan nahi Elkarateak tresna guztiei eutsi behar dienik mugaegunera arte; aktibo finantzarioak helburu horrekin kudeatzen direla jo ahal izango da, etorkizunean salmentak gertatu badira edo espero badira ere. Horretarako, Elkarateak kontuan hartzen ditu aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia, salmenta horien arrazoiak eta etorkizuneko salmenten jarduerarekiko igurikimenak. Elkarateak inbertsio horien inguruan egiten duen kudeaketa egitatezko kontua da, eta ez dago bere asmoen mende banakako tresna batentzat.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatik kredituak (kobrantza geroratu duen Elkarateak trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza-aktiboak) eta eragiketa ez-komertzialengatik kredituak (ondare-tresnak edo deribatuak ez izan arren, merkataritza-jatorririk ez duten eta zenbateko jakin edo zehaztagarriko kobrantzak dituzten finantza-aktiboak, Elkarateak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak).

Elkarateak uste du hirugarrenei lagako zaizkien eta haiei baja emango ez dieten merkataritza-zordunek eta kobratu beharreko kontuek negozio-eredu horri eutsiko diotela.

Kategoria honetan sailkatutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Ondoren, finantza-aktibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratu-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz eskatutako ordainketak, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Aktibo finantzario baten kontratuko diru-fluxuak jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, Elkarateak balio-narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den aztertzen du.

Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago aktibo finantzario baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten aktibo finantzarioen talde baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatu den gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten duela, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz. Kasu horretan, aktibo finantzario horien balio-narriaduragatiko galera liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia da, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzetik datozenak barne, hasieran kontabilizatzen direnean kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta sortuko dutela uste baita.

Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago narriaduragatiko balio-zuzenketa baten balioa eta galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean atzera itzultzea gastu edo sarrera gisa aitortzen direla, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketak aktiboaren kontabilitate-balioa du mugatzat, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz lehengoratzeko-datan aitortuta egongo litzatekeena.

Elkarateak zuzenean murrizten du aktibo finantzario baten zenbatekoa liburuetan, erabat edo partzialki berreskuratzeko arrazoizko itxaropenik ez duenean.

Bereziki, merkataritza-zordunen narriaduragatik egindako balio-zuzenketak Zuzendaritzak iritzi handia izatea eta saldo indibidualak berrikustea dakar, bezeroen kreditu-kalitatean, merkatuaren egungo

joeretan eta kaudimengabezien analisi historikoan (maila agregatuan) oinarrituta.

Hala ere, Elkartek ez du aitortzen Administrazio Publikoekin, finantza-erakundeekin eta berme eraginkorrekin bermatutako saldoekin izandako narriaduragatiko balioespen-zuzenketarik.

2. *Finantza-aktibo kostudunak:*

Balorzio-kategoria honetan sartzen dira ondarean egindako inbertsioak, baldin eta inbertsio horien arrazoizko balioa ezin bada zehaztu merkatu aktibo batean tresna berdinentzat kotizatutako prezio bati erreferentzia eginez edo ezin bada fidagarritasunez balioetsi, bai eta taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak ere, Kontabilitate Plan Orokorren urteko kontuak egiteko 13. arauan definitzen diren moduan.

Kategoria honetako inbertsioak, hasiera batean, kostuan baloratzen dira, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan eta zuzenean egozten ahal zaizkien transakzio-kostuetan. Azken horiek ez dira sartzen taldeko enpresetan egindako inbertsioen kostuan.

Era berean, ondare-tresnen hasierako balioespenean sartzen da lehentasunezko harpidetza-eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Hasierako errekonozimenduaren ondoren, kategoria honetan sartzen diren ondare-tresnak kostuaren arabera baloratzen dira, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatua kenduta, halakorik bada.

Ekitaldia ixtean gutxienez, behar diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta inbertsio baten liburuetaiko balioa berreskuragarria ez dela dioen ebidentzia objektiboa badago. Balio zuzenketaren zenbatekoa da liburuetaiko balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko diferentzia, hau da, arrazoizko balioari salmenta-kostuak kenduta inbertsioaren ondoriozko etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko zenbatekorik handiena; ondare-tresnen kasuan, honela kalkulatzeko da, bai enpresa partzipatuak egindako dibidendu-banaketaen ondorioz jasoko diren zenbatespenen bidez, bai enpresa horretako inbertsioa besterentzearen edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasoko direnak zenbatetsiz, bai enpresa partzipatuak sortuko dituen eskudiru-fluxuetan izango duen partaidetza kalkulatu, bai ohiko jardueretatik, bai besterentzetik edo kontuetan baja emateagatik datozenak.

Ondare-tresnetako inbertsioen zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ez badago, aktibo mota horien narriaduragatiko

galeraren zenbatespena entitate partizipatuaren ondare garbiaren eta balorazioaren datan dauden gainbalio tazituen arabera kalkulatzeko da, zerga-efektuaren garbi. Balio hori zehazteko, eta enpresa partizipatuak beste batean inbertitu badu, kontuan hartuko da Merkataritza Kodearen irizpideak eta hura garatzeko arauak aplikatuz egindako urteko kontu bateratuetan sartutako ondare garbia.

Balio-narriaduragatik egiten diren balio-zuzenketa azterketa eta, hala badagokio, itzulketa, gastu edo diru-sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Balio-narriadura erregistratu ez bada, balio-narriadura itzuli den egunean kontabilizatuko litzatekeen inbertsioaren liburu-balioa izango da muga.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak-

Erosi ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko diru-sarreratzat hartzen dira. Kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz aitortzen dira, eta dibidenduak, berriz, bazkideak hauek jasotzeko eskubidea duela adierazten denean.

Aktibo finantzarioen hasierako balioespenean modu independentean erregistratzen dira, epemuga kontuan hartuta, une horretan sortu diren eta mugaeguneratu ez diren interes esplizituen zenbatekoa, baita eskuratzeko unean organo eskudunak adostutako dibidenduen zenbatekoa ere. Horren ondorioz, zenbateko horiek ez dira sarrera gisa kontabilizatzen galdu-irabazien kontuan.

Banatutako dibidenduak eskuratzeko dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz, partaidetuak eskuratzeko datatik banatutako zenbatekoak sortutako mozkinak baino handiagoak direlako, dibidenduak ez dira diru-sarrera gisa aitortzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Finantza-aktiboen baja-

Aktibo finantzario bati edo haren zati bati baja ematen dio Elkartek, aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean, eta funtsean transferitu direnean haren jabetzari datxekion arriskuak eta onurak, inguruabar horietan ebaluatzen baita Elkartaren esposizioa, lagapenaren aurretik eta ondoren, transferitutako aktiboaren diru-fluxu garbien zenbatekoen eta egutegiaren aldaketarekin alderatzen. Aktibo finantzarioaren jabetzari datxekion arriskuak eta onurak funtsean laga direla ulertuko da, aldaketa horrekiko esposizioa esanguratsua izateari uzten dionean, aktibo

Erro
Jasotako

A

finantzarioarekin lotutako etorkizuneko diru-fluxu garbien balio eguneratuaren aldaketa osoarekin alderatuta.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren (lortutako edozein aktibo berri kontuan hartuta, bere gain hartutako edozein pasibo berri kenduta) eta aktibo finantzarioaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori baja ematen zaion ekitaldiko emaitzaren parte da. Halaber, zuzenean ondare garbian metatutako edozein irabazi edo galera galdu-irabazien kontura birsailkatzen da.

Aitzitik, Elkartek ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta pasibo finantzario bat aitortzen du, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berekoa, aktibo finantzarioen lagapenetan, baldin eta aktibo finantzarioei atxikitzen bazaizkie funtsean bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak, hala nola efektuen deskontuan, baliabidedun faktoringean, berrerosteko ituna duten aktibo finantzarioen salmentetan, prezio finko batean edo salmenta-prezioan gehi interes batean, eta aktibo finantzarioen beste mota bateko berme finantzarioetan xurgatzen diren galerak.

Pasibo finantzarioak

Jaulkitako, egindako edo bere gain hartutako finantza-tresnak pasibo finantzario gisa sailkatzen dira, osorik edo zati batean, baldin eta, haien errealitate ekonomikoaren arabera, Elkarteari kontratuzko betebeharrak badakarkio, zuzena edo zeharkakoa, eskudirua edo beste aktibo finantzario bat emateko, edo hirugarrenekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko, baldintza kaltegarrietan, hala nola jaulkitzailearen nahitaezko berrerosteketa aurreikusten duen finantza-tresna bat, edo jaulkitzaileari ordaindu beharreko zenbateko bat edo eskubide jakin bat ematen diona.

Sailkapena eta balorazioa-

Baloratzeko, Elkartek dituen pasibo finantzarioak kategoria honetan sailkatzen dira:

1. Kostu amortizatutako pasibo finantzarioak:

Elkartek kategoria honetan sailkatzen ditu pasibo finantzario guztiak, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak (ordainketa geroratua duen enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortzen diren finantza-pasiboak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko zorrak (tresna eratorriak izan gabe, merkataritza-jatorria ez duten finantza-pasiboak, Elkarreak jasotako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak).

Kategoria honetan sartutako pasibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Ondoren, finantza-pasibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak, zeinen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita, balio nominalaren arabera baloratzen dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Pasibo finantzarioen baja-

Elkarreak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja ematen dio betebeharra iraungi denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo iraungi denean.

Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa aktibo baten salmentagatik jasoko litzatekeen prezioa da, edo balorazio-datan merkatuko parte-hartzaileen artean antolatutako transakzio baten bidez pasibo bat transferitzeko edo ezeztatze ordainduko litzatekeena. Arrazoizko balioa zehazteko, ez da inolako kenketarik egin behar besterentzearen edo beste bide batzuetatik xedatzearen ondorioz egin daitezkeen transakzio-kostuengatik. Ez da inola ere arrazoizko balio hartuko bortxazko, presazko edo nahigabeko likidazio-egoera baten ondorioz egindako transakzio baten emaitza dena.

g) **Kapital sozial kooperatiboa-**

Kapital sozial kooperatiboaren kontzeptua, kalifikazioa eta balorazioa

1. Kontzeptua:

Sozietate kooperatibo baten kapital soziala ekarpenek eratzen dute, nahitaezkoak eta borondatezkoak, xede horretarako eginak, diruzkoak nahiz diruzkoak ez direnak, eratu zen unean egindakoak edo geroagokoak, bai bazkide berriak sartu direlako bai ondorengo kapital handitzearen edo borondatezko ekarpenen ondorioz.

2. Kalifikazioa:

Kooperatiben kapital soziala ondare garbi gisa kalifikatzen da, bereziki, funts bereki gisa, finantza-tresna konposatu gisa, edo pasibo gisa, bazkide edo partaideen ekarpenen ezaugarrien arabera.

Funts berekien maila dute kapital sozialari egindako ekarpenek, eta haien ordainketa, baja kasuan, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak baldintzarik gabe uko egin ditzaketenak, aplikagarria den legeak eta kooperatibaren estatutu sozialek ezarritakoaren arabera, betiere ez badute behartzen sozietate kooperatiboa bazkideari edo partaideari ordainketa nahitaezko bat egitera, eta itzulera hautazkoa baldin bada.

Bestalde, kapital sozialari egindako ekarpenek finantza-tresna konposatutzat hartzen dira, gutxienez, ondare garbiaren osagai bat eta finantza-pasiboaren osagai bat barne hartzen duten neurrian. Bereziki, finantza-pasiboko osagai bat barne hartzen dute baja kasuan dirua itzultzeko eskubidea duten bazkideen ekarpenek eta ordainketa edo itzulketa nahitaezkoa elkartuta dutenak.

Aurreko paragrafoetan aurreikusita ez dauden kasuetan, kapital sozialari egiten zaizkion ekarpenak finantza-pasibo gisa kalifikatzen dira.

3. Balorazioa:

Funts propietzat hartzen den kapital soziala harpidetutako ekarpenen zenbatekoagatik baloratzen da, eskatu ez den kapitalaren zatian murriztua. Zuzenean egozgarriak zaizkion jaulkitze-gastuak Sozietatearen erreserbak gutxituz aitortzen dira.

Elkarteak finantza-tresna konposatuak jaulkitzen dituenean, tresna aitortu, baloratu eta aurkezten du, oro har, finantza-pasibo baten antzera, hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera, egoki denean ordainketari

edo hautazko itzulketari egokitzen zaien kontabilitate-tratamendua emateari utzi gabe.

Finantza-pasibo gisa kontabilizatu beharko den kapital soziala “Finantza pasiboak kostu amortizatura” kategorian sartzen dira. Pasiboaren hasierako balorazioa harpidetutako ekarpenen zenbatekoa da, eskatu ez den kapitalaren zatian murriztua. Zuzenean egozgarriak zaizkion jaulkipen-gastuak galdu-irabazi kontuan aitortzen dira egiten direnean, finantza-irizpide batean arabera inputazio fidagarri bat egin daitekeenean izan ezik, eta kasu horretan irizpide horri jarraitzen zaio.

Kapital sozialaren murrizketa

Kapital sozial kooperatiboaren murrizketa baja hartzen duten bazkideen ekarpenen ordaintzearen ondoriozko murrizketari dagokio, Batzar Nagusiaren erabakiz bazkideei edo partaideei egindako ekarpenen ordainketaren ondorioz, galeren eta beste arrazoi batzuen egozpenen ondorioz, legeak xedatutakoaren arabera.

Baja hartzen duten bazkideei ekarpenak ordaintzeagatik sortutako funts propiotzat hartzen den kapital sozial kooperatiboaren murrizketek, aipatutako ordainketa formalizatzen den kooperatibaren akordioa tinko bihurtzen den unetik aurrera, sailaren izaeraren aldaketa dakarte; beraz, zor gisa kalifikatzen dira kapital sozialari egindako ekarpenen balio egiaztatuaren zenbatekoagatik, hura sortzen den datan.

Kapital murrizketaren ondorioz, funts propioen beste sail batzuei dagokien beste zenbatekorik ordainduko balitz, aurretik adierazitako termino beretan kalifikatzen dira.

Baja hartzen duen bazkideari egin beharreko ekarpenen ordaindu beharreko zenbatekoa “Bazkideekiko zorrak” sailean erregistratzen da, pasibo ez-korrontearen edo balantzearen korrontearen “Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko zorrak” epigrafearen barruan, epemugaren arabera.

h) Izakinak-

Salgaien eta beste horniduren izakinak eskurapen-prezioan balioesten dira, eta honek ez du merkatuko balioa gaintitzen.

i) Diruzaintza eta baliokideak diren beste aktibo likido batzuk -

Diruzaintza eta beste aktibo likido batzuk kutxan dagoen eskudirua eta kreditu-erakundeetan dauden ageriko banku-gordailuak barne hartzen ditu, baita, egoki denean, likidezia altuko epe laburreko beste inbertsio batzuk ere, betiere eskudiru bihur badaitezke eta haientzat balio-aldaketaren arriskurik ez badago eta enpresaren diruzaintzaren kudeaketa-politika normalaren zati badira. Eragin horietarako, eskuratu diren datatik hiru hilabetetik beherako epemugak dituzten inbertsioak barne hartzen dira.

Diruzaintza-fluxuaren egoeraren eraginei dagokienez, egoki denean, diruzaintza eta baliokideak diren beste aktibo likido batzuk bezala agerian galdagarriak diren aldian behingo banku-zorpekoak eta Elkartearen diruzaintzaren kudeaketaren zati direnak barne hartzen dira. Banku-zorpekoak balantzean aitortzen dira kreditu-erakundeekin dauden zorreatik finantza-pasibo gisa.

j) Hezkuntza, formakuntza eta sustapen funtsa-

Funts hau legeak ezarritako betebeharrak betetzeko sortu da, eta bazkideen, langileen, edo kasuan kasu, orokorrean komunitatearen onurarako pentsatutako hezkuntza eta sustapen jarduerak egitea du helburu. 3. eta 13. oharrean adierazi bezala, ekitaldiko soberakin garbien %10 gutxienez bideratuko da funts honetara, Nahitaezko Erreserba Funtsa sozietatearen kapitalaren %50era iristen ez denean izan ezik; kasu honetan, erdira murriztu ahal izango da hezkuntza, formakuntza eta sustapen Funtsaren alde ezarritako gutxienerako dotazioa. 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian funts honi eginiko dotazioa, ekitaldiko soberakinaren kargura, 2.512 eurokoa izan da.

Euskadiko kooperatiben legeak, abenduaren 20ko, 11/2019legeko 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, Elkartek ez du ekarpen honen gaineko xedapen ahalmenik, herri onuradun xedeagatik haratago. Hortaz, aipatutako Funtsa bahituezina izango da, balantzearen pasiboan erregistratuko delarik. Ezarritako herri onuradun xedeetara bideratzen ez diren ekarpenen zenbatekoak, zuzkidura sortu den hurrengo ekitaldi ekonomikoan Euskal Autonomia Erkidegoko Zor Publikoko tituluetan jaulkituko dira, baita finantza errendimenduak ere. Titulu hauek ezin izango dira mailegu eta kreditu korranteetara pignoratu.

k) Mozkinen gaineko zerga -

Ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren gastua Irabazi-asmorik Gabeko Entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren arabera kalkulatzeko da.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Araua ere aplikatu behar zaio; izan ere, zerga-oinarria zehazteko gastu kengarrien kasu berezi batzuei izan behar dira kontuan Elkartea bereziki babestutako kooperatiba baita.

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastuak edo dirusarrerak, zerga arruntaren ondoriozko gastuari edo dirusarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuaren ondoriozko gastuari edo dirusarrerari dagokion zatia hartzen ditu.

Zerga arrunta Elkartek ekitaldi bateko mozkinen gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaintzen duen zenbatekoa da. Zergaren kuotako kenkariak eta bestelako abantaila fiskalek, atxikipenak eta konturako ordainketak kenduta, bai eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietako galera fiskal konpentsagarriak ere, baldin eta benetan ekitaldi honetan aplikatu badira, zerga korrientearen zenbatekoa txikiagoa izatea eragiten dute. Mozkinen gaineko zerga arruntaren aktiboak edo pasiboak balioztatzeke, zerga-agintariengandik ordaintzea edo berreskuratzea espero den kopuruak hartzen dira kontuan, ekitaldia ixten den egunean indarrean edo onartuta eta argitaratzeke dauden araudia eta zerga-tasak erabiliz.

Mozkinen gaineko zerga arruntaren zein geroratuaren gastua edo sarrera emaitzetan kontabilizatzen dira, ondare garbiko partida batean zuzenean aintzatesitako transakzio edo gertaera batetik sortzen denean salbu; kasu horretan, partida horren kargura edo abonatuta kontabilizatzen dira.

l) Ondasunak saltzeagatik eta zerbitzuak emateagatik lortutako diru-sarrerak-

Aintzatespen - eta balioespen-irizpide orokorra

Elkartek bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru-sarrerak aitortzen ditu bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, Elkartek diru-sarrerak balioesten ditu, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoan.

Aintzatespena-

Bezero batekin egindako kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak aitortzen ditu Elkartek, bezeroari konprometitutako ondasun edo zerbitzuen gaineko kontrola, hau da, bete beharreko betebeharrak, transferitzen zaizkionean edo egin ahala.

Bete beharreko betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), Elkarrekin kontratuaren hasieran erabakiko du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean betetzen den.

Elkarrekin bezeroekin sinatutako kontratuaren betebeharrak denboran zehar betetzen dira, gehienetan.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik eratorritako diru-sarrerak kontratu-betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen edo aurrerapenen arabera onartzen dira, baldin eta Elkarrekin aurrerapena neurtzeko informazio fidagarria badu. Elkarrekin, onartu beharreko dirusarreraren zenbatespenak berrikusten du, eta, beharrezkoa bada, aldatu egiten ditu, hartutako konpromisoa bete ahala. Data jakin batean enpresa gai ez bada betebeharraren betetze-maila arrazoiz neurtzeko, konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero badu ere, diru-sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.

Une jakin batean betetzen diren kontratu-betebeharren kasuan, egikaritzetik eratorritako diru-sarrerak data horretan aitortzen dira. Hori gertatu arte, produktua ekoiztean edo fabrikatzean sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Elkarrekin aktibo baten kontrola denboran zehar transferitzen duela ulertzen da irizpide hauetako bat betetzen denean:

- Bezeroak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu Elkarrekin jarduerak ematen dizkion onurak, Elkarrekin garatzen duen heinean; horrela, beste enpresa batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke orain arte egindako lana funtsean berriro egin beharko.
- Jarduera garatu ahala bezeroak kontrolatzen duen aktibo bat sortzen edo hobetzen du Elkarrekin.
- Elkarrekin aktibo espezifiko bat egiten du bezeroarentzat, bestelako erabilerarik gabe, eta Elkarrekin kobratzeko eskubide galdagarria du orain arte burututako jarduerarengatik. Eskubide horrek, gutxienez, egindako kostuak gehi irabazteko arrazoizko marjina berreskuratzeak aukera ematen dio.

Bestalde, une jakin batean betetzen diren betebeharren kasuan, bezeroak aktibo baten kontrola lortzen duen une zehatza identifikatzeko, Elkarrekin honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

- Bezeroak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzen berezko arrisku eta onura esanguratsuak.
- Elkarrekin transferitu du aktiboaren jabetza fisikoa.
- Bezeroak jaso (onartu) du aktiboa, kontratuko zehaztapenen arabera.
- Bezeroak aktiboaren jabetza du.

Balorazioa-

Zerbitzuak ematek datozen diru-sarrera arruntak diruzko zenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, kontrakontuaren arrazoizko balioan, jaso edo jasotzea espero dena, kontrakorik frogatu ezean, bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa dena, Elkartek eman ditzakeen deskontuen, prezioan beherapenen edo antzeko beste partida batzuen zenbatekoa kenduta, baita kreditu nominalei erantsitako interesak ere. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-kredituei erantsitako interesak sartzen dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Diru-sarreraren barruan ez dira sartzen Elkartek hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, bai eta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

Zerbitzuengatiko eta salmentengatiko diru-sarrerak

Gizartearen ustez, irakaskuntza-jardueragatiko zerbitzuak betebeharrak dira; izan ere, bezeroarentzako transferentzia-eredu bera duten eta denbora zehar betetzen diren zerbitzuak dira. Jarduera horren diru-sarrerak, ezarritako zerbitzuei dagozkienak, hileroko kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan, irakaskuntza-aldian (irailetik ekainera). Elkartek alde aurretik helbideratutako ordainagiriak bidaltzen dizkie bazkide kooperatibistei, irakaskuntza-jarduera egiten den hilabete bakoitzaren hasieran.

Bestalde, eskolako materiala, kirol-arropa eta *Ipad* edo *Chromebook*-ak saltzeagatik lortutako diru-sarrerak aitortu egiten dira kontrola transferitzen denean.

m) Hornidurak-

Elkarteen Artezkaritza Kontseiluko kideek urteko kontuen formulazioa egitean honako hauen arteko bereizketa egiten dute:

- Hornidurak: egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, bai eta legezko obligazioak, kontratuzkoak, inplizituak edo tazitoak, iraganeko gertakarietatik eratorriak izan; haien kitapenerako litekeena da baliabide-irteera bat egotea, baina zehaztugabeak izaten dira haien zenbatekoari edo/eta kitapen-uneari dagokienez.















A





- Kontingentziak: iraganeko gertakarien ondorioz sortutako obligazio posibleak; haien etorkizuneko gauzatzeak Elkartearen borondatek at dauden gertakari bat edo gehiago gertatzeak edo ez gertatzeak baldintzatzen du.

Urteko kontuek hornidura guztiak biltzen dituzte, zeintzuekin betebeharra erantzun behar izateko probabilitatea kontrakoa gertatzeko baino handiagoa den eta haien zenbatekoaren arrazoizko estimazioa egin ahal izango dela balioesten den. Haien zuzkidura erantzukizuna edo obligazioa sortzen denean egiten da, obligazioaren izaeraren arabera egoki den emaitzen kontuko epigrafean.

Kontingentziak ez dira urteko kontuetan aitortzen, baizik eta haien berri ematen da memoriaren oharretan, urrunekoak ez direla kontsideratzen denean behintzat.

Obligazioa kitatu edo transferitzeko beharrezko zenbatekoaren egungo balioaren ahalik eta balioespenik onenagatik balioesten dira hornidurak, kontuan hartuz gertakariari eta haien ondorioei buruz dagoen informazioa, eta aipatu hornidura eguneratsetik sortzen diren doikuntzak finantza-gastu gisa erregistratuz, sortzen doazen neurrian. Hala ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga duten horniduren kasuan, eta eragin finantzarioa ez denean garrantzizkoa, ez da inolako deskontu motarik egiten.

Hornidurak emaitzetara aplikatzen dira, obligazioa kitatzeko baliabideen artea bat gertatzeko aukera kontrakoa gertatzeko baino txikiagoa denean.

n) Langileei epe luzera ordaintzeagatiko pasiboak -

Aplikagarria den Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera, Elkartek bere langileei jarraitutasun- edo iraunkortasun-sari bat emateko obligazioa du hartuta, gutxienez sektorean 20 urteko zerbitzua eman duten eta, gutxienez, 55 urte bete dituzten langile guztiei. Aipatu sariaren zenbatekoa lau aparteko ordainsarien zenbatekoaren baliokidea izango da lehen 20 zerbitzu-urteengatik eta ordainsari gehigarria lehen 20 urteak gainditzen dituzten 5 urte bakoitzeko.

Langile bakoitzaren lan-bizitzan zehar jaso beharreko sari bakarra denez gero, langileak erabaki ahal izango du saria 55 urte betetzen ditunean jaso nahi duen edo ondorengo edozein unetan, behin saria jasotzeko ezarritako baldintzak bete ondoren.

Aurretik aipatu diren konpromisoak betetzeko Elkartek bideratzen dituen funtsak honela erregistratzen dira: "Epe luzerako hornidurak- Langileentzako epe luzerako prestazioengatiko obligazioak",

galdu-irabazien kontuaren “Pertsonal-gastuak - Hornidurak” epigrafean zuzkidurak eginez (15. eta 22. oharrak).

Eusko Jaurlaritzak ordainketa eskuordetutako sistemara biltzen diren irakasleek sortutako jarraitutasun- edo iraunkortasun-sariaren zenbatekoaz arduratzen da, prozedura honen eraginpean dauden ordainsari-kontzeptuengatik, alegia. Elkarateak kalkulu aktuarial baten arabera ordainketa eskuordetura biltzen ez diren irakasle eta langileen kasuan sortutako saria bere zenbateko osoan erregistratzen du, baita Eusko Jaurlaritzak ordainketa eskuordetuko sistemara biltzen dituen irakasle eta langileekin prozedura honen eraginpean ez dauden ordainsari-kontzeptuetarako. Elkarateak

Bestalde, aurretik aipatutako Hitzarmen Kolektibora bildutako langileek “urte sabatikoa” deritzon zati batean ordaindutako baimen bat gozatzeko aukera dute; soldataren %84 kobratuko lukete urte horretan eta aurreko lau urteetan. 2025eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian Elkarateak 22.228 euroko zenbatekoa erregistratu du kontzeptu horrengatik (2024ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian elkarateak ez du zenbatekorik erregistratu).


o) Beste hornidura batzuk -

Elkarateak hornidura bat kontabilizatzen du kooperatibako bazkideen seme-alaben eskolaratzeagatik, garraio zerbitzuagatik eta jangelatik eratorritako gastuen kostu estimatuagatik, haiek Elkaratean ikasketak amaitzen dituzten arte, tutorearen heriotza edo erabateko baliaezintasunaren kasuan.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren galdu-irabazien zordunketa kontzeptu hau dela-eta 36.506 eurokoa izan da (17.050 eurokoa 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian) eta galdu-irabazien kontuko “Beste ustiapen-gastu batzuk- Kanpoko zerbitzuak” epigrafean erregistratu da (15. oharra).

p) Kaleratzeagatik kalte-ordainak -

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Elkarateak kalte-ordainak ordaindu beharko die, baldintza jakin batzuetan, lan-harremanak deuseztatzen dizkien langileei. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeagatik kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian. Kontzeptu horrengatik, 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontura 4.864 euro zordundu da (zero euro 2024ko abuztuaren 31n



amaitutako ekitaldian), eta galdu-irabazien kontuko "Pertsonal-gastuak - Soldatak, lansariak eta antzekoak" epigrafean erregistratuta dago.

q) Transakzioak lotura duten alderdiekin -

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko urteko kontuak prestatzean, kontuan hartu dira taldeko enpresa gisa modu gehiengodunean parte hartutako enpresak.

Orobat, Elkarteari lotuta jotzen dira taldeko enpresez gain, Elkarteko boto-eskubidean partaidetza zuzen edo zeharkakoa duten pertsona fisikoak, Elkartean garrantzizko eraginik izateko moduan egon daitezen, baita ahaide hurbilak, Elkartearen langile funtsezkoak (enpresaren jardueren plangintzan, zuzendaritzan eta kontrolean agintea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak, zuzenean edo zeharka), besteak beste, Artezkaritza Kontseiluko kideak eta Zuzendariak, haien ahaide hurbilak, baita aldez aurretik aipatutako pertsonen garrantzizko eragina izan dezaketen erakundeak ere.

Era berean lotura duten alderditzat hartuko dira Elkartearekin kontseilari edo zuzendariren bat partekatzen dituzten enpresak, bi enpresen finantza- eta ustiapen-politikan garrantzizko eraginik ez dutenean izan ezik.

Elkarteak lotura alderdiekin duten bere eragiketa guztiak merkatuko balioetara egiten ditu.

r) Ingurumen arloko ondarezko elementuak -

Ingurumen arloko aktibotzat hartzen dira Elkartearen jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, xede nagusi bezala ingurumen-inpaktua gutxitzea eta ingurumenaren babesa eta hobekuntza dutenean, etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea ere barne.

Elkartearen jarduerak, berez, ez du ingurumen-inpaktu adierazgaririk.

s) Aktiboak eta pasiboak korronte eta ez-korronte artean sailkatzea -

Eransten den balantzean, saldoak ez-korronte eta korronte gisa sailkatzen dira. Korronteak dira Elkarteari ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo egitea espero dituenak. Sailkapen horrekin bat egiten ez dutenak ez-korronteak dira.







t) Diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak -

Itzulgarriak ez diren diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak, oro har, ondare garbian aitortutako sarrera gisa kontabilizatu egiten dira, egoki denean, haien emakida ofiziala lortzen denean eta haiek emateko baldintzak betetzen direnean edo haiek jasotzeko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean, eta galdu-irabazien kontuan aitortzen dira haietatik eratorritako gastuekin modu korrelazionatuan. Itzulgarriak diren diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak Elkartearen pasibo gisa erregistratzen dira, ez itzulgarri izaera lortu arte; hortaz, ez da sarrerarik erregistratuko momentu hori eman arte.

Diru-izaera duten diru-laguntzak, dohaintzak eta utzirikoak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioagatik balioesten dira eta, egoki denean, diru-izaera ez dutenak jasotako aktiboaren arrazoizko balioagatik.

Itzulgarriak ez diren diru-laguntza, dohaintza eta utzirikoen emaitzetara egoztearen haien xedea kontuan hartuz egiten da.

Kapital diru-laguntzak, haiekin finantzatutako aktiboei dagokien amortizazioaren proportzioan egozten dira ekitaldiko emaitzan.

Itunpeko hezkuntza-ikastetxe pribatua denez gero, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik jasotako diru-laguntzak finantzatutako gastuak sortzen diren ekitaldian sarrera bezala egozten dira.

(5) Ibilgetu Ukiezina

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar eransten diren balantzetako "Ibilgetu ukiezina" epigrafean izan den mugimendua honako hau izan da:



The image shows several handwritten signatures and initials in blue ink. On the left, there is a signature that appears to read 'Izaskun Aguirre'. Below it are several other signatures and initials, including one that looks like 'Ari', 'Eusebio', and a large, stylized signature. In the center, there are two more signatures, one of which is a simple 'A' with a diagonal line. To the right, there are three more signatures, including one that is a large, stylized 'B' and another that is a simple 'E'. At the bottom center, the number '26' is written.

2025.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

	Eurotan		
	Saldoa 2024.08.31n	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Saldoa 2025.08.31n
KOSTUA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	7.491	-	7.491
Aplikazio informatikoak	440.005	96.121	536.126
	<u>447.496</u>	<u>96.121</u>	<u>543.617</u>
AMORTIZAZIO METATUA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	(7.491)	-	(7.491)
Aplikazio informatikoak	(329.569)	(37.675)	(367.244)
	<u>(337.060)</u>	<u>(37.675)</u>	<u>(374.735)</u>
GARBIA			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	-	-	-
Aplikazio informatikoak	110.436	58.446	168.882
	<u>110.436</u>	<u>58.446</u>	<u>168.882</u>

2024.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

	Eurotan		
	Saldoa 2023.08.31n	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Saldoa 2024.08.31n
KOSTUA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	7.491	-	7.491
Aplikazio informatikoak	388.106	51.899	440.005
	<u>395.597</u>	<u>51.899</u>	<u>447.496</u>
AMORTIZAZIO METATUA:			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	(7.491)	-	(7.491)
Aplikazio informatikoak	(310.260)	(19.309)	(329.569)
	<u>(317.751)</u>	<u>(19.309)</u>	<u>(337.060)</u>
GARBIA			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	-	-	-
Aplikazio informatikoak	77.846	32.590	110.436
	<u>77.846</u>	<u>32.590</u>	<u>110.436</u>

2025eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian egindako ibilgetu ukiezinaren gehikuntza nagusiak honako hauei dagozkie: sare-kommutadore bat erosteari, datu-baseen konfigurazio eta inplementazioei eta hainbat eraikinetan egindako konexio- eta kable-lanei.

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n, "Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak" eta "Aplikazio informatikoak" epigrafeetan erabileran dauden ibilgetu ukiezinako elementu batzuk erabat amortizatuak daude 304.726 eurotan.

(6) Ibilgetu Materiala

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar eransten diren balantzetako "Ibilgetu materiala" epigrafean barne hartutako kontuetan izan diren mugimenduak honako hauek izan dira:

2025.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

	Eurotan			Saldoa 2024.08.31n
	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Erretiroak	Saldoa 2024.08.31n	
KOSTUA:				
Lursailak eta eraikinak-				
Lursailak	-	-	-	815.260
Eraikinak	852.239	-	-	16.113.245
	852.239	-	-	16.928.505
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk-				
Instalazio teknikoak	-	-	-	18.026
Beste instalazio batzuk	35.212	(4.142)	(4.142)	347.027
Altzariak	8.862	(950)	(950)	1.107.837
Informazioa prozesatzeko ekipiak	62.727	-	-	507.489
	106.801	(5.092)	(5.092)	1.980.379
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	-	-	-	74.012
	959.040	(5.092)	(5.092)	18.982.896
AMORTIZAZIO METATUA:				
Eraikinak	(342.935)	-	-	(7.856.475)
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk-				
Instalazio teknikoak	(279)	-	-	(10.615)
Beste instalazio batzuk	(13.188)	4.142	4.142	(280.547)
Altzariak	(56.702)	325	325	(882.005)
Informazioa prozesatzeko ekipiak	(47.795)	-	-	(374.495)
	(117.964)	4.467	4.467	(1.547.662)
	(460.899)	4.467	4.467	(9.404.137)
GARBIA:				
Lursailak eta eraikinak-				
Lursailak	-	-	-	815.260
Eraikinak	509.304	-	-	8.256.770
	509.304	-	-	9.072.030
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk-				
Instalazio teknikoak	(279)	-	-	7.411
Beste instalazio batzuk	22.024	-	-	66.480
Altzariak	(47.840)	(625)	(625)	225.832
Informazioa prozesatzeko ekipiak	14.932	-	-	132.994
	(11.163)	(625)	(625)	432.717
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	-	-	-	74.012
	498.141	(625)	(625)	9.578.759

2024.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

	Eurotan			
	Saldoa 2023.08.31n	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Erretiroak	Saldoa 2024.08.31n
KOSTUA:				
Lursailak eta eraikinak-				
Lursailak	815.260	-	-	815.260
Eraikinak	13.365.082	1.793.539	-	15.261.006
	14.180.342	1.793.539	-	16.076.266
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu baterial batzuk-				
Instalazio teknikoak	18.026	-	-	18.026
Beste instalazio batzuk	315.098	859	-	315.957
Altzariak	1.027.402	72.523	-	1.099.925
Informazioa prozesatzeko ekipoak	390.173	54.589	-	444.762
	1.750.699	127.971	-	1.878.670
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	105.693	70.704	-	74.012
	16.036.734	1.992.214	-	18.028.948
AMORTIZAZIO METATUA:				
Eraikinak	(7.216.562)	(296.978)	-	(7.513.540)
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk-				
Instalazio teknikoak	(10.057)	(279)	-	(10.336)
Beste instalazio batzuk	(260.409)	(11.092)	-	(271.501)
Altzariak	(761.813)	(63.815)	-	(825.628)
Informazioa prozesatzeko ekipoak	(285.083)	(41.617)	-	(326.700)
	(1.317.362)	(116.803)	-	(1.434.165)
	(8.533.924)	(413.781)	-	(8.947.705)
GARBIA:				
Lursailak eta eraikinak-				
Lursailak	815.260	-	-	815.260
Eraikinak	6.148.520	1.496.561	-	7.747.466
	6.963.780	1.496.561	-	8.562.726
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk-				
Instalazio teknikoak	7.969	(279)	-	7.690
Beste instalazio batzuk	54.689	(10.233)	-	44.456
Altzariak	265.589	8.708	-	274.297
Informazioa prozesatzeko ekipoak	105.090	12.972	-	118.062
	433.337	11.168	-	444.505
Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	105.693	70.704	-	74.012
	7.502.810	1.578.433	-	9.081.243

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n, "Lursailak eta eraikinak" epigrafeak Elkartearen ikastetxeari lotutako lursailen, eraikinen eta beste eraikuntza batzuen kontabilitate-balio garbia biltzen du.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian egindako ibilgetu materialaren gehikuntza nagusiak honako hauei dagozkie, besteak beste: eskolako jantokiaren eremua egokitzeko egindako zenbait lanei dagozkie (erreferentzia kamerak, ontzi-garbigailuak, etab.), jantokiko gunera sartzeko errazteko bide bat eraikitzeari eta, azkenik, Batxilergoko eraikineko aparkalekuaren eremua egokitzeko zenbait jarduketari.. Inbertsio horietako batzuk ordaintzeke daude 2025eko abuztuaren 31n, erantsitako balantzearen "Epe laburrerako zorrak - beste finantza-pasibo batzuk" epigrafean (19. oharra).

Aitzitik, 2024ko ekitaldian ibilgetuaren gehikuntza nagusiak aerotermita-sistemaren instalazioa eta patioa zabaltzea aparkaleku berri bat sartuz izan ziren.

“Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak” izeneko epigrafeak lursail baten erosketarako guztizko kopuruaren %10eko aurrerakinari dagozkio, zenbateko hau 453.750 eurokoa delarik. Salerosketa gauzatuko da Loiuko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldakuntza burutzen badu. Esandako aldakuntza Sozietatearen Hezkuntza Ekipamenduko oraingo Sistema Orokorreko lursailak handitzean datza.

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n, ibilgetu materialaren elementu batzuk guztiz amortizatuak daude, 2.862.048 eta 2.827.023 eurokoak, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, banakapen honen arabera:

	Eurotan	
	2025.08.31	2024.08.31
Eraikinak	1.904.706	1.904.706
Instalazio teknikoak	6.873	6.873
Beste instalazio batzuk	156.713	156.713
Altzariak	535.105	500.080
Informazio prozesatzeko ekipoak	258.651	258.651
	<u>2.862.048</u>	<u>2.827.023</u>

Elkarteak hainbat aseguru-poliza ditu kontrataturik ibilgetu materialaren elementuek atxikiak dituzten arriskuak estali ahal izateko. Poliza horien estaldura nahikoa da Elkartearen iritziz.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldia amaitzean, Elkarteak ez du inbertsio-konpromisorik sinatuta.

2025eko abuztuaren 31n, 18. oharrean agertzen diren maileguen berme diren Elkartearen ondasun higiezinak daude, 2.674 mila euroko kontabilitate-balio garbiarekin (2.831 mila eurokoa 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian), gutxi gora behera, banakapen honen arabera:

Handik Asine

30

Xedea	Bermeak	Azken epemugaren data	Milaka euro		
			Emandako hasierako zenbatekoa	Geratzen den saldoa	
				2025.08.31n	2024.08.31n
Inbertsioen finantzaketa	Hipotekazkoa DBHko lursailaren eta eraikinaren gain	2027.10.02	850	236	331
	Hipotekazkoa DBHko lursailaren eta eraikinaren gain	2028.10.16	1.000	492	642
	Hipotekazkoa DBHko lursailaren eta eraikinaren gain	2038.06.23	800	295	800
	Hipotekazkoa DBHko lursailaren eta eraikinaren gain	2039.04.26	1.350	1.255	1.350
			<u>4.000</u>	<u>2.278</u>	<u>3.123</u>

(7) **Ondasun Higiezineta Inbertsioak**

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar eransten diren balantzeta "Ondasun higiezineta inbertsioak" epigrafean barne hartutako kontuetan izan diren mugimenduak honako hauek izan dira:

2025.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

	Eurotan		
	Saldoa 2024.08.31n	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	Saldoa 2025.08.31n
KOSTUA:			
Eraikinak	<u>3.894.311</u>	<u>193.287</u>	<u>4.087.598</u>
AMORTIZAZIO METATUA:			
Eraikinak	<u>(1.765.435)</u>	<u>(107.850)</u>	<u>(1.873.285)</u>
GARBIA			
Eraikinak	<u>2.128.876</u>	<u>85.437</u>	<u>2.214.313</u>













	Eurotan			
	Saldoa	Gehikuntzak		Saldoa
	2023.08.31n	edo	Erretiroak	2024.08.31n
	Zuzkidurak			
KOSTUA:				
Eraikinak	3.542.077	352.234	-	3.894.311
AMORTIZAZIO METATUA:				
Eraikinak	(1.664.858)	(100.577)	-	(1.765.435)
GARBIA				
Eraikinak	1.877.219	251.657	-	2.128.876

2025eko abuztuaren 31n, Elkartearen higiezin hau, hain zuzen, 2025ean iraungiko den 2.013 mila euroko maileguaren bermearekin hipotekatuta dago; 2024ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian aipatu berri den maileguaren saldoa 51 mila eurokoak izanik (150 mila euro 2024ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian) (18. oharra).

(8) **Finantza - aktiboak Kategoriak**

Finantza-aktiboen kategoriak -

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n, kategoriak eta mailak egindako finantza-aktiboen sailkapena, taldeko enpresen ondarean egindako inbertsioak izan ezik (9. oharra), eta diruzaintza eta beste aktibo baliokide batzuk kontuan hartu gabe (12. oharra), baita haiek liburuetan duten balioa ere, ondoren zehazten da:

2025.08.31:

Kategoriak	Eurotan			
	Ez-korrontea	Korrontea		
	Epe luzerako finantza-inbertsioak	Epe laburreko finantza-inbertsioak	Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk	Guztira
Finantza aktiboak kostu amortizatura	-	286.000	93.534	379.534
Finantza aktiboak kostura	26.742	-	-	26.742
	<u>26.742</u>	<u>286.000</u>	<u>93.534</u>	<u>406.276</u>

2024.08.31:

Kategoriak	Eurotan				
	Ez-korrontea	Korrontea			Guztira
	Epe luzerako finantza-inbertsioak	Epe laburreko finantza-inbertsioak	Taldeko enpresa, elkartu eta bazkideetan epe laburrerako inbertsioak	Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk	
Finantza aktiboak kostu amortizatura	-	509.000	45.000	203.855	757.855
Finantza aktiboak kostura	96.468	-	-	-	96.468
	<u>96.468</u>	<u>509.000</u>	<u>45.000</u>	<u>203.855</u>	<u>854.323</u>

Elkartearen Errektore Kontseiluaren kideentzat aurreko taulan zehaztu diren finantza-aktiboek liburuetan duten zenbatekoa haien arrazoizko balioaren hurbilketa onargarria da.

Aktibo finantzarioek eragindako galdu-irabazi garbiak kategorien arabera-

Bestalde, aktibo finantzario ezberdinek eragindako galdu-irabazi garbiak horrela sailkatzen dira:

**2025.08.31n amaitutako
urteko ekitaldia:**

	Eurotan
	Finantza aktiboak
	kostu
	amortizatura
Hirugarrenengatiko sarrera finantzarioak	31.317
Irabazi/(Galera) garbiak	31.317

**2024.08.31n amaitutako
urteko ekitaldia:**

	Eurotan
	Finantza aktiboak
	kostu
	amortizatura
Hirugarrenengatiko sarrera finantzarioak	50.601
Irabazi/(Galera) garbiak	50.601

(9) Epe Luzerako eta Laburrerako Inbertsioak Taldeko Enpresetan

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar eransten diren balantzeen epigrafe honetan barne hartutako kontuen konposizioa eta izandako mugimenduak hauek dira:

	Eurotan		
	31.08.2024	Gehikuntzak edo Zuzkidurak	31.08.2025
Inbertsioak taldeko enpresetan-			
Ondare-tresnak	155.800	-	155.800
Narriadura	(86.074)	(69.726)	(155.800)
	69.726	(69.726)	-

2025eko martxoaren 4an, Lauro Fundazioa eratu zen, sozietateak 30.000 euroko fundazio-zuzkidura jarrita. Kopuru hori erantsitako 2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuko "Beste ustiapen gastu batzuk – Kanpoko zerbitzuak" epigrafean erregistratuta dago. Behekosoloa XXI S.L.U.k fundazio horri 2025/2026 ekitaldian bere aktiboetatik dohaintzan ematea aurreikusi duenez, sozietateak sozietate horretan duen partaidetzaren zenbatekoa eta

merkataritza-sozietateari emandako 208.000 euroko kreditua narriatu ditu. Adierazitako narriadurari dagokion zenbateko osoa, 277.726 eurokoa, erantsitako galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta finantza-tresnak besterentzeagatiko emaitza" epigrafean erregistratuta dago.

(10) **Epe luzerako eta laburreko Finantza-inbertsioak**

"Epe luzerako finantza-inbertsioak-Ondare-tresnak" epigrafea bat dator, zati handienez, Laboral Kutxan duen 26.141 euroko partaidetzarekin.

Elkartek partaidetza duen edozein elkarte ez du Burtsan kotizatzen.

Bestalde, "Epe laburreko finantza-inbertsioak" izeneko epigrafean erregistratutako saldoak jasotzen ditu epe laburreko muga-eguna duten eta urtero berritzen diren epe finkorako ezarpenetan egindako inbertsioak.

(11) **Finantza-tresnen izaerari eta arrisku mailari buruzko informazioa**

Elkarteen finantza-arriskuen kudeaketa Finantza Zuzendaritzaren esku dago, eta behar diren mekanismoak ezarrita ditu interes- eta kanbio-tasetan aldaketak izateko eta kreditu- eta likidezia-arriskuak pairatzeko aukerak kontrolpean izateko. Jarraian azalduko dira Elkarteari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak.

a) **Kreditu arriskua**

- *Likidezia arriskua-*

Elkartek finantza-tresna batean behar bezain azkar desinbertitzeko zailtasunak izateko arriskua, kostu gehigarri esanguratsurik izan gabe, edo ordainketa-betebeharrei aurre egin behar zaien unean likideziarik ez izateko arriskua.

Maniobra-funtsaren (aktibo korronteak ken pasibo arruntak) kontrol zorrotz batek, ezein finantza-erakundetan arrisku-kontzentrazio handiegirik ez egoteak eta zorpetze-mailen eta funtsen sorreraren etengabeko jarraipenak negozioaren likidezia-arriskua behar bezala kontrolatzea ahalbidetzen dute.

Zuzendaritzak Elkartearen likidezia-erreserbaren aurreikuspenen jarraipena egiten du, eskudirua eta eskudiruaren baliokideak barne (12. oharra Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueraren ondoriozko ordainketa-konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, Elkarteak bere balantzea erakusten duen diruzaintza eta maniobra-funtsa ditu.

A

- *Kreditu arriskua-*

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueraren ondoriozko ordainketa-konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, Elkartek bere balantzea erakusten duen diruzaintza eta maniobra-funtsa ditu.

b) Merkatu arriskua

Finantza-tresna baten etorkizuneko arrazoizko balioa edo diru-fluxuak aldatu ahal izateko arriskua da, interes-tasetan (interes-tasaren arriskua), kanbio-tasan edo prezio- eta eskaintza-arriskueta izandako aldaketan ondorioz.

Arrisku honek interes-tasa, kanbio-tasa eta prezioaren beste arriskuak barneratzen ditu.

- *Prezio arriskua-*

Elkartek ez du kotizatutako lehengaiaren prezioaren arriskurik. Era berean, ez du kotizazioa duen inbertsiorik.

- *Kanbio tasa arriskua-*

Ez dago kanbio-tasaren arrisku, eragiketa guztiak eurotan egiten baitira.

- *Interes tasa arriskua-*

Elkartearen ustiapen-jardueren diru-sarrerak eta diru-fluxuak independenteak dira merkatuko interes-tasen aldaketekiko.

Sozietateak kontrolatzen dituen aktibo ordainduak interes-tasa finkoan daude. Bestalde, interes-tasa finkoko maileguek arrazoizko balioko interes-tasen arriskuak dituzte, eta hori ez da oso esanguratsua. Formalizatutako mailegu gehienak interes-tasa finkokoak dira.

(12) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Eransten diren 2025 eta 2024ko abuztuaren 31ko balantzeen epigrafe honetan “Diruzaintza” kontuaren saldoa honako hau da:




















A

	Eurotan	
	2025.08.31	2024.08.31
<u>Diruzaintza:</u>		
Kutxa	1.743	1.171
Bankuak eta kreditu erakundeak -		
k/k Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A.	28.877	23.003
k/k Kutxabank, S.A.	332.027	222.906
k/k Caja Laboral Popular		
(Gaur egun Laboral Kutxa)	6.252	5.448
	367.156	251.357
	368.899	252.528

Elkartearen kontu korronteak eskuragarri daude eta merkatuko interes-tasetan kontratatuta daude.

(13) Funts Propioak

2025 eta 2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar “Funts propioak”, hala nola, “Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funtsa” ataletan izan diren mugimenduak hauek izan dira:

2025.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

2025.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:	Eurotan					Pasibo korrontea Epe laburrerako Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funtsa
	Funts propioak					
	Beste erreserba batzuk					
	Kapital kooperatibo harpidetua	Nahitezko Erreserba- Funtsa	Beste erreserba batzuk	Bazkideen ekarpenak	Kooperatibaren emaitza	
Saldoa 2024ko abuztuaren 31n	1.100.894	998.091	2.344.143	1.149.575	15.955	1.773
2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitzaren aplikazioa	-	-	15.955	-	(15.955)	(1.773)
Kooperatibisten altak	92.560	22.620	-	-	-	-
Kooperatibisten bajak	(66.869)	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	(44.200)	-	-	44.200	-	-
Gehikuntzak	4.320	-	-	283.784	-	-
Zuzkidurak	-	-	-	-	-	2.512
Kooperatibaren emaitza	-	-	-	-	22.608	-
Saldoa 2025eko abuztuaren 31n	1.086.705	1.020.711	2.360.098	1.477.559	22.608	2.512

2024.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:

2024.08.31n amaitutako urteko ekitaldia:	Eurotan					Pasibo korrontea Epe laburrerako Hezkuntza, Formakuntza eta Sustapen Funtsa
	Funts propioak					
	Beste erreserba batzuk					
	Kapital kooperatibo harpidetua	Nahitezko Erreserba- Funtsa	Beste erreserba batzuk	Bazkideen ekarpenak	Kooperatibaren emaitza	
Saldoa 2023ko abuztuaren 31n	1.151.383	980.931	2.325.321	817.929	18.822	2.091
2023ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren emaitzaren aplikazioa	-	-	18.822	-	(18.822)	(2.091)
Kooperatibisten altak	77.001	17.160	-	-	-	-
Kooperatibisten bajak	(81.626)	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	(45.864)	-	-	45.864	-	-
Gehikuntzak	-	-	-	285.782	-	-
Zuzkidurak	-	-	-	-	-	1.773
Kooperatibaren emaitza	-	-	-	-	15.955	-
Saldoa 2024ko abuztuaren 31n	1.100.894	998.091	2.344.143	1.149.575	15.955	1.773

Kapital kooperatibo harpidetua -

Kapitala bazkideek egindako ekarpenek eratzen dute eta titulu nominatiboetan akreditatuta daude. Kapitalari bazkideek egindako hasierako ekarpena, 2024/2025 eta 2023/2024 ikasturteetarako sarrera unean ordaindutakoa, alegia, 1.040 eurokoa izan da, hurrenez hurren, eta 2025eko abuztuaren 31n bazkideen kopurua 1.261 koa da (1.270 bazkide 2024ko abuztuaren 31n).

Elkartearen Estatutuetan ezarritako Kapital minimoaren zenbatekoa 373.529 eurotakoa da.

2025eko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian, 89 bazkide berrik alta eman dute (bazkide ez-aktibotik bazkide aktibora aldatu direnak kontutan harturik) eta 67 bazkidek, berriz, baja.

2024ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldian, 69 bazkide berrik alta eman zuten eta 86 bazkidek, berriz, baja.

